



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Hauxe dut neure Seme maitea. Entzun berari!”

2021eko otsailaren 28a
Garizumako 2. igandea (B)

Marko 9, 2-10

Handik sei egunera, Jesusek Pedro, Santiago eta Joan hartu eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar litzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien Jesusekin hizketan. Pedrok esan zion Jesusi: “Maisu, zein ederki gauden hemen! Zergatik ez egin hiru etxola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat?”

Ez zekien zer esaten zuen ere, beldurak jota baitzeuden.

Orduan, hodei batek estali zituen eta mintzo hau entzun zen hodeitik: “Hauxe dut neure Seme maitea. Entzun berari!”

Eta hartan, inguruan begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten berekin, eta besterik inor ez.

Menditik beherakoan, ikusitakoa inori ez aipatzeko agindu zien, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hau bete zuten, baina “hilen artetik pizte” horrekin zer adierazi nahi ote zien ziharduten beren artean.

Kurutzera doan Jesus disdiratsu agertzen da Tabor mendian. Aren eriotza ez da izango frakaso bat.
Goratu daigun Jesus eta entzun daiguzan bere berbak.

EZ NAHASTU JESUS BESTE INOREKIN

Jose Antonio Pagola

Ebanjelariak dioenez, Jesusek Pedro, Santiago eta Joan berekin hartu eta mendi batera eraman ditu aparte, eta «antzaldatu egin da haien aurrean». Gurutzeko dolarezko bere zoriaz hitz egin izan dienean, aurka gogorkienik egin diotenak dira hiru horiek.

Gainera, ideia zoro horiek Jesusi burutik kentzen saiatu da Pedro. Santiago eta Joan anaiak Mesiasen erreinuan lehen postuen eske joan zaizkio Jesusi. Hain juxtu, horien aurrean antzaldatu da Jesus. Beste inork baino premia handiagoa dute.

Pasadizoa, hainbat baliabide sinbolikoz berregina, handiosa da. Jainkoaren beraren aintzaz «jantzirik» aurkeztu zaie Jesus. Aldi berean, Elias eta Moises, tradizioaren arabera herioari harrapatuak izan eta Jainkoaren ondoan bizi diren bi horiek, Jesusekin solasean agertu zaizkie. Horrek guztiak Jesusen jainkozko izaera sumatzera gonbidatzen gaitu, arerioek gurutzean josia, baina Jainkoak berpiztua.

Berez atera zaio Pedrori erreakzioa: «**Jauna, bai ondo gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta hirugarrena Eliasantzat**». Pedrok ez du ezer ulertu. Batetik, maila berean eta pareko ezarri ditu Jesus alde batetik eta Elias eta Moises bestetik: nori bere txabola. Bestetik, Jesusen bide latzari oztopo jarriz jarraitzen du: Tabor mendiko aintzian atxiki nahi du Jesus, nekalditik eta Kalbarioko gurutzetik urrun.

Jainkoak berak bideratuko du, ordea, handikiro: «**Nire Seme maitea da hau**». Ezin nahas daiteke beste inorekin. «**Entzun berari**», baita bere azkena piztuera izango duen gurutze-bideaz

Jesusek bakarrik bidaltzen du argia. Gainerako guztiak –profeta eta irakasle, teologo eta hierarka, doktore eta predikari– eguteraan dugu aurpegia. Ez dugu nahastu behar Jesus beste inorekin. Hura bakarrik da Seme maitea. Soilik haren Hitza behar dugu entzun. Gainerakoena haren gaitu eraman.

Eta gaur berean ere hura entzun beharra dugu, aldi honetako «gurutzea lepoan hartzeaz» mintzo zaigunear. Arrakastak kalte egiten digu kristauoi. Are gehiago: gatazkarik, ukorik eta gurutzerik gabe, Jesusekiko eta haren erreinuaren egitasmoarekiko leial izatea posible dela pentsatzeraino eraman gaitu. Kristau «gurutzeratu» bezala bizitzeko ahalbide gehiago dugu gaur egun. On eginen digu horrek. Geure kristau-nortasuna berreskuratzen lagunduko digu.